



BARREN

TOKIKOM

# Deserrira zigortuak





**DANOBATGROUP**

## GOIMEK S.COOP

### HONAKO HAU BEHAR DA:

# FRESATZAILE MANDRINATZAILEA

#### FUNTZIOAK:

- Fresatzeko makina handien erabilera menperatzea (zubiak, zutabe mugikorrek makinak edo mandrinatzeak), bai arbastatze eragiketan eta baita akaberakoetan esperientzia izatea.

#### ESKAKIZUNAK:

- Titulazioa: Goi mailako heziketa zikloa, Mekanizazio Bidezko Produktzioa edo baliokidea.
- Hizkuntzak: Euskara menperatzea.
- Esperientzia zabala antzeko lanpostu batean.
- CNC menperatzea, eta Heindenhain ezagutzea baloratuko da.
- Ekimena
- Taldean lan egiteko eta harremanetarako gaitasuna
- Egiaztapen tresnak (Alexometroak, mikrometroa etab) erabiltzen jakitea.

#### ESKAITZEN DA:

- Berehala lanean hasia.
- Esperientziaren eta gaitasunen araberako soldata.

**EPEA: 2017ko irailaren 29a baino lehen.**

Interesa dutenek Giza Baliabideen Departamentura bidali dezakete beraien Kurrikuluma: [ecarballo@soraluce.com](mailto:ecarballo@soraluce.com)

## GOIMEK S.COOP

### HONAKO HAU BEHAR DA:

# TORNU BERTIKALEKO LANGILEA

#### FUNTZIOAK:

- Tornu bertikala erabiltzen jakitea, arbastatze eta akaberako eragiketarako egiteko.

#### ESKAKIZUNAK:

- Titulazioa: Goi mailako heziketa zikloa, Mekanizazio bidezko Produktzioa edo baliokidea.
- Hizkuntzak: Euskara menperatzea.
- Esperientzia zabala antzeko lanpostu batean.
- CNC programazioa ezagutzea.
- Ekimena.
- Taldean lan egiteko eta harremanetarako gaitasuna
- Egiaztapen tresnak ( Alexometroak, mikrometroak etab) erabiltzen jakitea

#### ESKAITZEN DA:



- Berehala lanean hasia.
- Esperientziaren eta gaitasunen araberako soldata.

**EPEA: 2017ko irailaren 29a baino lehen.**

Interesa dutenek Giza Baliabideen Departamentura bidali dezakete beraien Kurrikuluma: [ecarballo@soraluce.com](mailto:ecarballo@soraluce.com)



ANA ALBERDI



## “Jendea jada ez da txandal arrunt batekin konformatzen jarduera fisikoa egiteko”

**S**artu gara irailan, Eneko! Zein azkar pasatzen den uda, eta zein zaila den errutinara berriz ere ohitzea. Baina kurtsu berria ate joka dugu, eta askorentzat, iraila da helburu eta asmo berriei ekiteko unea. Ez dakit zuri gertatzen zaizun, baina niri udan asko kostatzen zait urtean zehar dudana kirol errutinari eustea. Eguraldia izango da agian, edo plan gehiago egiten ditudala, edo alferrago nagoela... kasuak kasu, gimnasioa alde batera lagatzen dut. Irailetik aurrera, gogor ekingo diot berriz ere; hitz ematen dut.

Eta honen harira, kirolaren gaiari eutsi nahiko nioke gaurkoan, hain modan dagoen gaiari, alegia. Izan ere, ez al duzu gero eta jende gehiago kirolarekin konprometituta ikusten? Osasunak arduratzen gaitu, edo, itxura fisiko hobeto bat izateak bultzatzen gaitu kirola egitera? Presio sozialak, agian? Seguru nago askoren asmoetako bat dela aurtengo kurtsuan kirola egiteari ekitea.

Arazoak arazoi, jendea jada ez da txandal arrunt batekin

edo propagandako kamiseta batekin konformatzen jarduera fisikoa egiteko. Betiko elastiko beltzak ez daude modan, eta orain, kolore bizidun galtza eta kamisetak ikusten ditut, nonahi. Zu moda munduan zabilzala, Eneko, zeintzuk dira aurtengo negurako ikusiko ditugun tendentzia nagusiak kirol modari dagokionez?

Dendetan kuxkuxeatu dudanaren arabera, estanpatuek protagonismo handia hartuko dute, eta udan ez bezala, kolore ilunagoak nagusituko dira; urdinak, granateak, berdeak... betiere diseinu berezi eta erakargarriekin. Sare sozialak ere kirola egiteko arropa gomendioekin bete dira azken urte hauetan. Punta-puntako markek begi ona izan dute, eta Instagram bezalako plataformetan publizitate handia egitea lortu dute Influencer-ei esker. Publizitatea egiteko modu hori izango ote da gure kirolarekiko konpromisoaren atzean dagoena? Jantziak ez ezik, ez al dizkigute sare sozialek bizitza estiloak saltzen? Datorren zutaberako zabalik lagatzen dudana eztabaida izan daiteke hau...



ENEKO ITURBE



## “Baina, e, oraindik ez dute kirola egiteko indarra ematen duen arropa magikorik asmatu!”

**N**iretzat eta askorentzat bukatu dira udako oporrak. Ziur nago jende gehienak nik egin dudana egin duela: asko deskantsatu, ederto jan eta hobeto edan. Ez al dira, ba, oporrak horretarako? Astelehena, ordea, oso bestelakoa izan zen: lanera itzuli, gogo handirik gabe, alferkeria dezenterekin... Gainera, ziur naiz, kilo bat edo beste ere hartu dugula oporrez gozatu ahal izan dugun gehienok! Gimnasioan ekiteak kalterik ere ez liguke egingo, ezta? Influencer-ek gero eta argazki gehiago erakusten dituzte gimnasioko lokekin eta, beraz, esan genezake kirola egiteko arropa ere moda zirkuluan sartu dela bat-batean. Hortaz, adi egon dadila udazken-negu honetan gimnasia joatea nahi duena, hainbat tendentzia azalduko baitizkizuet jarraian!

Lehenik eta behin, gimnasia joateko ez dugu zertan etxean dugun arropa zahar, itsusi edo traketsena jantzi behar. Kirola egiteko arropa kalean ere erabiltzekoa da, eta beraz, gorri-gorri jarri eta izerditzeko asmoa dugunez, behintzat txukundu dezagun gure look-a, ez al da hala? Bigarren aholkua: bi piezako looka erostea; hau da, konbinatzen duten prakak, top edo kamiseta batekin, eta gainera, jaka tankera berekoa balitz, are hobeto! Estilo bereko

lookak oso politak izaten dira, batez ere, kolore edo estanpatu biziak badituzte. Koloreak aipatzen hasi garen honetan, ongi zabilzala esango nizuke, Ana; izan ere, berdeak eta granateak nonahi ikusiko ditugu hemendik aurrera, orain konjuntioak kontrako koloreekin lortzen dira-eta. Baina, ba al dakizu zein den denboraldi honetan eramango den kolore konbinazio nagusia? Gorria eta arrosa! Ziur nago jende askori ez zaiola gustatuko, baina horrelakoa da moda, aizu!

Azkenik, osagarriez hitz egin beharra dugu: motxilak, zapatilak, galtzerdiak, buruko zintak, toallak edo baita ur botilak ere, aurrerantzean fluor kutsuarekin aurkituko ditugu, itxura aerodinamikoaz eta material berrieekin eginak. Hortaz, hor doa nire gomendio nagusia: osagarri hauekin lor dezakezun kontrastea baliatu eta izan zaitez “kantosa”, bizitasuna duten osagarriek alaitasuna ematen dute-eta, lagun!

Beraz, Ana, nik eman ditut denboraldi honetan sport look ederrera edukitzeko jarraibideak. Baina, e, oraindik ez dute kirola egiteko errutina, konstantzia eta indarra ematen duen arropa magikorik asmatu! Hortaz, hori norberaren esku lagatzen dut. Zorte on denoi!

JESUS JIMENEZ

Ekonomialaria



rakurle bati baino gehiagori ekonomia eta sentimendu hitzak esaldi berean irakurtzea bitxia irudituko zaio. Hori gertatu zitzaidan niri Europako Batasuneko Sentimendu Ekonomikoaren Adierazleak krisia hasi aurreko maila gaingitu eta 111,9 punturaino gora egin zuela jakin nuenean. Indize subjektibo honen emaitzaren arabera, eurogunean hurrengo hilabeteak onak izango dira. Jakina da objektiboki neurtzen diren indizeak, hala nola, lan-

## Ekonomiaren sentimenduak

gabezia-tasa, barne produktu gordina etab. ekonomiaren osasunaren termometroak direla, baina zailagoa da konfiantza bezalako kontzeptua ekonomiaren indarra interpretatzeko baliagarri izan daitekeela ulertzea.

Adierazle honek inkestetan du oinarria, eta industria, zerbitzu, eraikuntza, merkataritza txikia eta kontsumitzaileen konfiantza indizeak batzen ditu. Hilerro, milaka enpresa eta kontsumitzaile beraien ekonomia edo enpresetan

*“Konfiantza bezalako kontzeptua ekonomiaren indarra interpretatzeko baliagarri izan daiteke”*

hurrengo hilabeteetan espero duten eboluzioari buruzko galdeketa egiten zaizkie, eta erantzun positibo, neutro eta negatiboen artean aukeratzeko dute. Eta emaitza guztiak prozesatu ondoren, Europako Batasunak zenbaki magikoa argitaratu eta interpretatzen du, eta albiste ona izaten da datuak aurreikuspena gaingitzen duenean.

Oraingo datua ontzat eman da ekonomiarenganako itxaropenak gora egiten duelako, baina ez da ahaztu behar Sentimendu Ekonomikoaren Adierazlea gaur egun bezain baikor zegoela mundu mailako krisi izugarri batek eztanda egin baino hilabete gutxi lehenago. Ez naiz ni izango inkesta hauei datorkiguna aurreikusteko baliagarritasuna ukatuko diona, baina bizi garen garai aldakor eta korapilatsu hauetan ziurtasun bakarra da etorkizuna iragartzea gero eta zailagoa izango dela.



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR  
943 744 112  
Publizitatea: 943 743 704  
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus  
barren@elgoibarkoizarra.eus  
www.barren.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriki lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Irtzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegi **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalaa Anaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirre-gomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegi, Maddi Mendibil, Haizea Berstein **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



ELGOIBARKO UDALA

EUSKARA  
elgoibar

LAGUNTAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► IGANDEAN KONTXARA!

Donostia Bizirik Elkarteak, Errausketaren Aurkako Koordinadorak eta Errausketaren Aurkako Mugimenduak erraustegiaren aurka eta osasunaren aldeko giza katea antolatu dute Kontxako hondartzan iganderako (11:30ean abiatuko da). Nahiz eta Zubietako erraustegiaren obrak hasiak egon eragile hauek proiektu honen aurkako borrokak aurrera jarraitzen duela adierazi dute. Klase politiko errausketazalearen eta modu batera edo bestera inplikaturik dauden enpresen interesak salatzen jarraituko dute.

Zubietan erakitzen hasi diren erraustegia ez da bromarako gaia. Bazene-

kiten 1.000 milioi euro baino gehiagoko kostua duela? Gipuzkoar bakoitzeko 1.500 euro baino gehiago! Diru guztia multinazional atzeritar baten esku pribatuetara joango da. Eta esan beharrik ez dago lanpostu gutxi sortuko dituela. Ekonomia zirkularrean oinarritutako proiektu batek, merkeago izatez gain, hamar aldiz lanpostu gehiago sortuko lituzke eta dirua Gipuzkoan bertan geratuko litzateke.

Ez ahaztu errausketak minbizia eta beste gaixotasun asko sortzen dituela eta ura, nekazaritzako lurra eta abeltzaintza kutsatzen dituela etorkizuneko belaunaldiak hipotekatuz. Nahiko gaixotua, kutsatua eta sostengagaitzezko

bidean badugu gure amalurra, eta orain arte gehiago gaixotu nahi gaituzte beharrezkoa ez den, eta osasunarentzat oso kaltegarria den Zubietako erraustegia bezalako azpiegitura handi hau inposatuaz. Alternatiba dagoelako, errausketarik ez inon!

A. I. Z.

**17/18**  
CURSO IKASTURTEA  
Matrikula epea ZABALIK  
Plaza de merkatariak ABIERTO

**ONGI ETORRI**  
euskarara

**UDAL EUSKALTEGIAK**  
euskara ikasleak - clases de euskara  
[www.udaleuskaltegiak.eus](http://www.udaleuskaltegiak.eus)

## 17-18 IKASTURTEA

### Ikastaroak

- Aurrez aurrekoak: 2, 3 edo 4 egun astean, mailaren arabera.
- Autoikaskuntza Internet bidez
- Ikastaro bereziak (enpresak, AISA, merkatariak eta ostalaritza)
- Perfilak (Administrazioa, Osakidetzak, Hezkuntza, ...)
- HABEren 1., 2., 3. eta 4. mailak
- EGA

16 urtetik gorakoentzat

**MATRIKULA ZABALIK IRAILAREN 26RA ARTE**

Langabetu, ikasle eta gurasoek, MATRIKULA ERDIA

Ikastaro amaieran BEKAK denentzat.

(Baldintzak betez gero)

Informa zaituz Udal Euskaltegian!

ELGOIBAR: 09:00-13:00 / 15:30-19:30

DEBABE UDAL EUSKALTEGIA

Kalebarren plaza, 2 - Tel.: 943 742 731

## Aurreko urteetan baino jende gutxiago ibili da aurten Mintxetako igerilekuetan



**E**kainaren 10ean hasi zen bainu denboraldia Mintxetako igerilekuetan, eta domekan bukatuko da. Orain arte, 33.000 erabiltzaile zenbatu dituzte, aurreko urteetan baino dezente gutxiago. Iaz, esaterako, 40.000 erabiltzailetik gora izan ziren. Jaitsiera hau udan egin duen eguraldi "eskasaren" adierazgarria dela azaldu dute Udal Kirol Patronatutik. Denboraldia amaitzeko zumba saioa egingo dute gaur, 18:00etatik aurrera, Elena Silva teknikariarekin.

## Gorixoren poniak irabazi zuen San Antolin jaietako desafioa



Ohiko txapel eta oliba hezur jaurtiketarekin hasi ziren San Antolin jaiak barixakuan Arriaga auzoan, eta urtero bezala ikusmin handia piztu zuten bi ekintzek. Baina jende gehiena Mendaroko Tope Natxiok giza-proba talde mistoa eta Gorixoren poniaren arteko desafioak erakarri zuen Arriagara. 150 kiloko ponia 350 kiloko harriari tiraka jardun zen, eta Tope Natxiok taldekoak, 650 kilokoari tiraka. Hogei minutuan zeinek plaza gehiago egin zen jokoa, eta azkenean, animaliak irabazi zuen, 68 plaza eginda. Tope Natxiok taldekoek 66 plaza osatu zituzten. Bertso afaria egin zuten ganean Andoni Egaña eta Amaia Agirre bertsolariekin. Zapatua ere ekintzaz beterik etorri zen, eta giro onean ospatu zuten San Antolin Eguna. *Argazki gehiago: [www.barrren.eus](http://www.barrren.eus)*

## Txomin Zabaleta izango da Mendaroko parrokoa

Angel Bazterretxea abadeak erretiroa hartu du, eta aurrerantzean Txomin Zabaleta elgoibartarra izango da Mendaroko parrokoa. Domekan eman zuen Zabaletak lehenengo meza Mendaron.

## San Roke jaietako errifaren zozketa egin dute

San Roke jaietako errifaren zozketa egin dute, eta janariz beteriko karretilaren irabazlea agertu da dagoeneko. Hala ere, telebistaren irabazlea ez da agertu oraindik. 1.420 izan da zenbaki saritua. (Erreserbakoa: 3.180)

## Patinaje ikastaroak antolatu dituzte Elgoibarren eta Mendaron

Patinaje ikastaroak antolatu dituzte Elgoibarren eta Mendaron ikasturte berri-rako. Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak irailerako familian egiteko patinaje ikastaroa antolatu du. Herri Eskolan izango dira lau saioak, ostiralero, irailaren 8an, 15ean, 22an eta 29an, arratsaldeko 17:30etatik 19:00etara. Interesa dutenek Olaizagan edo Mintxetan eman dezakete izena irailaren 6ra arte. Bazkide diren familientzako prezioa 39 eurokoa da, eta bazkide ez direnentzako, 49 eurokoa.

Mendaron, bestalde, urriaren 3tik abenduaren 12ra izango da ikastaroa. Umeentzako saioak martitzenetan izango dira, 18:00etatik 19:00etara Goñati pilotalekuan. Helduentzako saioak aldiz, martitzenetan 19:00etatik 20:00etara, Ikastolan. Patinak eta eskumuturreko, ukalondoko eta belauneko babesak beharrezkoak dira parte hartzeko, eta baita kaskoa ere.

## Mausitxako gaztak bigarren egin du Ordiziako gazta lehiaketan



Arg.: Sanbartolomeetako gazta lehiaketan ateratako argazkia

**A**rdi latxaren Gazta Lehiaketa entzutetsua jokatu zuten eguaztenean Ordizian, Euskal Jaien barruan, eta Elgoibarko Mausitxa baserriak bigarren saria eskuratu zuen, iaz bezalaxe. Aurtengoan Jose Luis Odriozola aiarak aurkeztutako gaztak irabazi du sari nagusia, eta Carrefour merkatal guneak erosi du gazta erdia, enkantean 8.200 euro ordainduta. Mausitxak hiru alditan irabazi du Ordiziako txapelketa (2005, 2007 eta 2009) eta, horrez gainera, 2005etik 2014ra artean Ordiziako gazta txapelketa irabazi zuten gaztagileek parte hartu zuten Ordizia Txapelkun Saria ere irabazi zuen 2014an. Orain dela gutxi, San Bartolome jaietan beste sari bat eskuratu zuen Mausitxak, Elgoibarko Gazta Lehiaketa irabazi baitzuen, San Bartolome jaietako baserriarren egunean.

Era berean, Ordiziako azokako barazki lehiaketan Elgoibarko Txillarre baserriak sari nagusia eskuratu zuen.

## Musikaz lagunduta hasi dute ikasturtea Elgoibarko umeek



Oin Alai egitasmoak antolatuta, musikaz lagunduta hasi zuten ikasturtea atzo Elgoibarko umeek. 8:30ean batu ziren Ikastolako eta Herri Eskolako ume eta gurasoak Kalegoen plazan. Mauxitxa txarangako kideak eta musika eskolako trikitilariak prest zeuden giroa alaitzeko, eta musika doinuekin egin zuten nork bere ikastetxerako bidea. Oin Alai egitasmoa Udalak jarri zuen martxan, umeak eskolara oinez joatea sustatzeko.

## Familia topaketak egingo dituzte irailaren 16an Upai Goiti baserrian

Familia giroan egiteko hainbat ekitaldi antolatu ditu Urbizixa taldeak irailaren 16rako. Guraso eta seme-alaben arteko harremanetan sakontzeko saioa egingo dute Sallobente auzoko Upai Goiti baserrian. Dantza integrala eta Mindfulnes teknikari esker, gorputz mugimendua eta musika uztartuko dituzte, norberaren emozioak, sormenak eta bizipenak azalertzeko. Egun osoko jardunaldia izango da, eta natura gunean paseatzeko aukera ere egongo da, zuhaitz eta berdegunez gozatzeko. 10:30ean hasiko dira, eta 20:30era arte egongo dira elkarrekin. Interesatuak euren jatekoa eraman beharko dute gainerakoekin konpartitzeko, eta jantzi erosoak eramatea gomendatu dute antolatzaileek. Adin guztietako jendearentzako saioa prestatu dute. Gurasoak seme-alabekin joanez gero, 100 euro ordaindu behar dira, eta gurasoetako bat seme-alabekin joanez gero, 80 euro. Izena emateko 627 117 819 telefonora deitu behar da.

## Kilometroetara joateko autobusak antolatu dituzte Elgoibartik eta Mendarotik

Irailaren 24an ospatuko da Gipuzkoako Ikastolen jaia Oñatin, eta hara joateko autobusak antolatu dituzte Elgoibartik eta Mendarotik. Mendaroko Udalak 5 euroan jarri ditu salgai autobuserako txartelak. Gaztelekuan edo Morroskillon erosi daitezke, irailaren 17a baino lehen. Autobusa 9:00etan irtengo da tren geltokitik, eta itzulera 20:00etan izango da. Elgoibartarrek, aldiz, Elgoibarko Izarran izango dute Kilometroetarako autobus txartelak erosteko aukera 8 euroan (Bazkideek 7 euro). Interesatuak irailaren 21era arte izango dute txartelak erosteko epea. Autobusa Sigmako zubitik irtengo da 10:00etan, eta 20:00etanitzuliko da bueltan Oñatitik.



Frankistek 1937ko otsailaren 9an Elgoibartik kanporatu zituzten hainbat emakume eta ume. Goian, Dominga Zendoia, Candida Arregi, Irene Okamika, Teresa Unzilla eta Angelita Azkue. Behean: Joseba, Sabin, Iker eta Xabier Argarate Untzilla anaiak, Bilboko Carlton hotolean egindako argazkian. Iturria: Elgoibar 1936 taldearen bidez.

# Zigor bikoitza

**Memoria historikoaren aldeko Elgoibar 1936 taldeak eta Taupada antzerki taldeak Frankismoaren biktimak oroitzeko hilabetea egin dute iraila Elgoibarren, eta hari horri tiraka, eta 'Ama, nora goaz' dokumentalak egindako memoria ariketa baliatuta, faxisten jazarpen makinak gogorren jo zuen talde batengan jarri dugu begia: 1937an frankistek euren herrietatik kanporatu zituzten emakume eta haurren. Gipuzkoako 14 herritan izan ziren kanporaketak, tartean Elgoibarren eta Mendaron. Datu zehatza lortzea zaila bada ere, uste da 90 bat izan zirela bi herriotan kanporatutakoak. Haietako batzuen testigantzak batu ditugu hemen (bideoa: [www.barren.eus](http://www.barren.eus)).**

- AINARA ARGOITIA -

**E**z zuten jakingo norbaitek erabakia hartua zuela, handik aurrera ez zirela berriro ume oso izango, gerrak bitan egindako umeak baizik", idatzi zuen Pili Kaltzada kazetari eta zutabegileak *Berria* egunkarian, 2017ko apirilaren 6ko alean. Eta ez zitzaion arrazoirik falta. Gerrak bitan egin zituen, eta 80 urte joan badira ere, haietako askori kosta egiten zaie oraindik gertatutakoa kontatzea, bizitakoa gogora ekartzea. Frankisten jazarpen makinak bihotzgabe egin zuen senideren bat Errepublikaren aldeko bandoan edo ihes eginda zuten emakumeen kontra. Jazarri, errepresaliatu eta erbestera behartu zituzten haietako emakume asko Gipuzkoan, umeak hartuta.

Zumaia izan zen herririk zigortuena. Zumaiako Erkibe Kultur

Elkartearen arabera, 256 emakume bota zituzten 1937ko otsailaren 13 eta 14an, eta seme-alabak haiekin. Gure inguruan ere erabili zuten, baina, faxistek errepresio bide hori. Joseba Esnal Erkibe Kultur Elkarteko kideak emandako datuen arabera, Elgoibarren, 50 lagun kanporatu zituzten gutxienez. Mendaron, berriz, 29 lagun izan ziren herriatik bota zituztenak, BARRENEK jakin ahal izan duenez. Karmele Gabilondo, Libe Iriondo, Sabin Argarate, Antonio Irigoien, Jesus Rementeria eta Miguel Iriondo dira ume zirela kanporatu zituztenetako batzuk [Azaleko argazkian, Antonio Irigoien eta Jesus Rementeria falta dira].

Aita, Silbino Gabilondo, Errepublikarren kontrolpeko lurretan aurrera eginda zuen Karmele Gabilondok, eta arrazoi horrengatik





## Elgoibarren, 63 andre eta ume kanporatu zituzten gutxienez frankistek 1937ko otsailan, eta Mendaron, hogeita bederatz

zigortu zituzten bera eta bere ama: Alberta Etxaniz. 1936ko irailaren 21ean ihes egin zuen Silbinok, Francoren tropak herrira sartu ziren egun berean [18:00ak aldera sartu ziren Uparitzaga gainetik behera, banderak hartuta]. "Urriaga baserriatik ikusi zituzten gure aitak-eta bazetozela Azkoitiatik, eta trote! egin zuten Markina aldera", oroitu du Karmelek.

Bezperan beste elgoibartar askok hartutako bidea hartu zuen Gabilondok ere. Abertzalea zen, eta errepresioaren beldur zen. Izan ere, asko berba egiten zen erreketek hartzen zituzten herrietan egiten zituzten atxiloketen eta fusilamenduen gainean. Emaztea eta 2 urte pasatxoko alaba herrian gelditu ziren.

Fronteak gure inguruko mendietan iraun zuen denboran bereziki, eta baita gero ere, giroa dezente gaiztotu zen herrian. Tentsio giroa bizi zen, eta ordura arte "bakean" bizi zirenen arteko harremanak ere txartu ziren, bizilagunen arteko salaketak areagotuz. Gerra giroa zen. Herriko gizon gazte asko zeuden kanpora ihes eginda edo frontean borrokatzen eta etxean gelditu zirenen egunerokoa ez zen samurra. Alberta Etxaniz hil zen, baina beste askoren moduan, senperrenak sufritu zituela badakite haren alabek, Karmele eta Begoña Gabilondok (Gerra bukatu berritan jaio zen Begoña) beldurrez eta falta denaren gomutan bizitzea ez delako erraza. 'Aquí hemos venido a traer el sagrado corazón' esaten ziguten; guri, euskaldunoi, zera baino eliztarragoak gineno! Etxean ere hartu behar izan genituen erreketek, isil-isilik".

Eta, hala, erreketek Elgoibarren sartu eta hilabeteetara abisua jaso zuen Albertak etxean. Agintari frankisten dekretua zen, mehatxua. Udaletxean jarrita zuten komandantzia militarra aurkezteko agindu zioten. Gainerako kanporatuei bezala, ihesi joandako senarraren egoera azaltzeko eskatu zioten eta agindu edo erregutu ziezaiola zortzi egunen barruan agintari frankisten aurrera agertzeko arma eta guzti, bestela herriatik botako zizutela bera eta bere 2 urteko alaba. Albertak, baina, arrastorik ez zuen gizona non zebilen, eta jakinda ere, nekez entregatuko zien haiei. "Txikia, baina gogorra zen gure ama". 'Pues entonces tras él, por indeseable', zitaldu zitzaion agintari frankista. Eta halaxe, otsailaren 9an, karnaballetako martitzen batez, mehatxua bete eta herriatik

bota zituzten, beste sei emakume eta sei ume-ekin batera: Dominga Zendoia, Angelita Azkue, Irene Okamika, Candida Arregi, Felisa Unzueta bi haurrekin (7 eta 6 urtekoak) eta Teresa Unzueta eta haren lau semeak (Joseba, 7 urtekoa; Iker, 5 urtekoa, eta 4 urteko bikiak: Sabin eta Xabier). Elgoibarko lehen kanporatuak izan ziren. "Bazkalostea zen, eta trenbidez bidali gintuzten Maltzagaraino, oinez",

oroitu du Karmelek. Maltzagan, milizianoek batu zituzten. Hutsarekin igaro zuten su-lerroa, oinez, tiro hots artean. [Karakate aldean, frankistak zeuden, eta Arrate aldera, errepublikarrak].

Erabat babesgabeak ziren, eta zapi zuriak astintzen egin zuten bidean aurrera, beste aldekoek, Errepublika zaleek, jakin zezaten eurretarrak zirela. Eurretarrak zituzten, bai, baina bazen haiei ere beldurra zienik kanporatuen artean. Eta ez da harritzekoa. Izan ere, agintari frankistek direnak eta bi zabaldu zituzten, etsietsian emakume haiek, amore eman zezaten. Hala jaso zuten *Eusko Deya* agerkarian 1937ko otsailaren 17ko alean, kanporaketen inguruko albistean: "(...) *Para que decidan, les advierten que, mientras en la zona dominada por ellos todo es orden y disciplina, en Bilbao la vida se debate en un infierno anarquizante por las luchas continuas que se suscitan entre nacionalistas y sindicalistas*". Errepublika zaleen aldean, apenas zegoela jatekorik eta lapurretak eta arpilatzeak eguneroko ogia zirela esaten zieten. "Ezer ez eramateko esan ziguten. Infernura gindoazela. Gurekin batera kanporatu zuten emakumeetako batek oinetakoe-tan eraman zuen dirua. Zapatarari eraman zizkion oinetakoak, oin-zolan dirua gordetzeko lekua egin zieziaion. Gogorra izan zen nora gindoazenik gabe etxetik irtete hori. Gure amak negar egiten zuen gerora ere", gogorazi du Karmelek. Trenbidetik oinez egin zuten Maltzagara arteko bidea. Andikanoraino lehengusina



Emakume eta umeen behartutako ihesa.



nagusiak lagundu zien, baina han alto eman eta itzularazi zuten hura Elgoibarrera. Maltzagan milizianoek batu zituzten eta gogoratu du Eibarko ospitalean igaro zutela gaua. Han, aitarekin elkartzeko aukera izan zuen Karmelek. “Hamar hilabete ziren etxetik ihes egin zuela, baina ezagutu nuen, bai. Markina aldean zegoen aita, erretagoardian. Han izan zuen kanporaketen berri”. Otsailaren 10a zen.

Markinan banatu ziren elgoibartarrak. “Gu, ama, Dominga Zendoia eta ni, Iruzubietara eraman gintuzten Eibartik, auto blindatu batean, eta hara, Bolibarko Salutregi baserrikoak agertu zitzaizkigun bila. Aitaren lagunak ziren itxuraz. Dominga, emakume edadetua zen, eta gure ama egin zen haren kargu, hala agindua zielako etxekoei. Hala, Salutregin bizi izan ginen denboran, gurekin egon zen [Carlton hotel parean egindako argazkian Dominga Zendoia ageri da, baina ez dago argi argazkia noizkoa den. Litekeena da Dominga Zendoiak Markinatik Bilborako bidea hartu izana eta han batu izana gainerakoekin.

Salutregiko pikupetik ikusten genituen gerra-hegazkinak ere gure gainean buelta ematen, Gernikara bidean”. Oroitzapen gutxi gordetzen ditu Karmelek sasoi hartakoak, baina gehienak onak. “Oso ondo hartu gintuzten”. Are lausoagoa da ondorengo urteez oroitzen duena. Aita, Silbino, preso hartu zuten eta kartzelaz kartzela erabili zutela dio, eta eurek, ama-alabek, Zamudion amaitu zutela, ziurrenik Markinako Esperantza arma-fabrika hara joana zelako, errepublika zaleentzako armak egitera. “Hantxe ikasi nuen erdaraz ere. Milizianoen artean ibiltzen nintzen egun osoan, eta hala esaten zuten: *‘Mírale a ésta, no se levanta apenas del suelo y ya habla idiomas’*. Gerra amaitu aurretik bueltatu ziren Karmele eta ama Elgoibarrera, eta hemen jaio zen

Begoña. “Hemen esaten zuten bueltatuz gero bazuela gure aitak lekua Ondarretako kartzelan, eta beranduago bueltatu zen hura”.

Lehenengo kanporatuak izan ziren Elgoibarren zazpi emakume eta zazpi ume haiek, baina etorriko ziren kasu gehiago. Otsailaren 10ean, beste hogeita bat kanporatu zituzten, tartean Josefa Inazia Manzisidor Aristi 32 urteko emakume gaztea eta haren urtebeteko semea, Antonio Irigoien. Antonioren aita ere [Antonio Irigoyen Urrestilla] aurrera eginda zegoen, etxean drama pasa berritan. Izan ere, Antonio Irigoienaren arreba Agustina frankisten kamioiak harrapatuta hil zen Errosario kalean. Heriotza-argiriak 1936ko irailaren 26ko data daruma, baina ez dago argi noiz izan zen, balitekeelako frankistak Elgoibarren sartu ziren egun berean gertatu izana, irailaren 21ean. Alaba hil berri eta senarra ihesi joanda, pentsatzekoa da Josefa Inazia Manzisidorrek zertzuk pasa ote zituen, baina hori dena gutxi ez, eta otsailaren 11n, herritik bota zuten frankistek, mantuko umea besotan hartuta. Aurrekoen bide bera eginarazi zieten hauei ere: oinez Maltzagaraino, su-lerroan barrena. *Euzkadi* egunkarian argitaratutakoaren arabera, Zestoatik kanporatu zituzten beste 11 emakumeri batu zitzaizkien egun honetan herritik bota zituzten elgoibartarrak eta elkarrekin iritsi ziren Eibarrera. Frontera ere iritsi zen albistearen oihartzuna, Irigoienek berak Elgoibar 1936 taldekoei egindako adierazpenetan zehaztu duenez. Bere izeba baten senarra, donostiarra, Kalamua aldean zegoen frankisten kontra engaiatuta, eta albistea irakurri zuenean berehala jaitsi zen Eibarrera, kanporatuetako bat emaztea zuelakoan. Izan ere, argitalpen hartan [*Euzkadi* egunkariaren otsailaren 11ko alean] Josefa Inaziarenak barik haren ahizparen izen-abizenak argitaratu zituzten: Josefa

*Gipuzkoatik Bizkaira bidalitako andre eta umeak, Lekeitiara bidean. Euskadiko Artxibo Historioka*







## 1937AN KANPORATUTAKO ELGOIBARTARRAK

### Otsailaren 9an kanporatuak

- ♦ Dominga Zendoia
- ♦ Angeles Azkue
- ♦ Alberta Etxaniz Arrieta eta haren alaba: Karmele Gabilondo (2 urte)
- ♦ Irene Okamika Lizundia
- ♦ Candida Arregi
- ♦ Teresa Unzilla ( Lau semerekin: Joseba, Sabin, Iker eta Xabier Argarate Unzilla. 7 urtekoa, 5 urtekoa eta 4 urteko bikiak)
- ♦ Felisa Unzueta Arriola

### Otsailaren 10ean kanporatuak

- ♦ Eduardo eta Jose Maria Elortza anaiak (15 eta 11 urte).
  - ♦ Jesusa Arrien Bilbao (37).
  - ♦ Miren eta Juanita Landaluze ahizpak (10 urteko bikiak).
  - ♦ Concepcion Uribetxeberria (36).
  - ♦ Jaime eta Fernando Azpiazu (7 eta 3).
  - ♦ Pura Salaberria (40).
  - ♦ Catalina Urtaza Salaberria (12)
  - ♦ Maria Koro Arrizabalaga (36).
  - ♦ Trinidad eta Maria Teresa Matas Koro (12 eta 10).
  - ♦ Isidora Ondarza Gorriti (38).
  - ♦ Josefa Inazia Manzidor Aristi (32 urte) eta haren semea: Antonio Irigoien (urtebete)
  - ♦ Eugenia Zubiaurre Zabala (42) eta haren semea Jesus Elortza Zabala (urtebete)
  - ♦ Beatriz Martinez Gomez (24)
  - ♦ Maria Angeles Ondarza Martinez (6)
  - ♦ Juana Gisasola Alberdi (40)
- Bezperan Zestoatik kanporatu zituzten hamaika lagunekin batera egin zuten Eibarrerako bidea, oinez. Zestoarrak autotan iritsi ziren Elgoibarrera. Maltzagara gudariak irten zitzaizkien eta haiek lagunduta iritsi ziren Eibarrera, Euzkadi egunkarian otsailaren 11ko alean jasotakoaren arabera.

### Otsailaren 11n kanporatuak. 'Maltzaga-Eibar-Bilbo' bidea hartu zuten

- ♦ Maria Jauregi (26) eta 3 urteko semea
- ♦ Teresa Untzeta (43)
- ♦ Rufina Urreta Garate (29) eta seme-alabak: Blanki Urreta (7) eta Fernando Urreta (5)
- ♦ Pepita Untzeta (32) eta 6,5 eta urtebeteko hiru alaba.
- ♦ Paulina Jubita (38) eta bi seme (11 eta 10).
- ♦ Higinia Agirrezabala (32) 6 eta 2 urteko bi ume.
- ♦ Leonor Olaizola (30)
- ♦ Dominga Lariz (55)
- ♦ Benita Bernedo (19) eta 5 hileko alaba
- ♦ Justa Garate Zelaia (30) eta 5 eta 3 urteko bi seme

### Elgoibar 1936 taldeak lortutakoak. Agirietan ez dago jasota zein egunetan kanporatu zuten

- ♦ Josefa Urreta Garate. Fulgencio Barrutia senarra Markinan Ordena Publikoko buruorde zelako kanporatu zuten, hiru alabekin batera: Belene Barrutia Urreta (9 hilabete), Consuelo Barrutia Urreta (4) eta Esther Barrutia Urrutia (6).

### Otsailaren 15ean kanporatua

- ♦ Amalia Barrutia Beitia (58)

## KANPORATUTAKO MENDAROARRAK. 1937KO OTSAILAREN 15EAN

- ♦ Pepita Zabala Arriola (23 urte)
- ♦ Aurora Ozkorta Zabala (2 urte térdi)
- ♦ Paquita Mardaras Areta (25)
- ♦ Gregoria Barrenetxea Areta (38)
- ♦ Manuel Iriondo Barrenetxea (14)
- ♦ Antonio Iriondo Barrenetxea (10)
- ♦ Maria Iriondo Barrenetxea (12)
- ♦ Jel Iriondo Barrenetxea (8)
- ♦ Juana Barrenetxea Areta (32)
- ♦ Elezar Lonbide Barrenetxea (8)
- ♦ Nerea Lonbide Barrenetxea (6)
- ♦ Xeber Lonbide Barrenetxea (2)
- ♦ Clara Etxebarria Arrillaga (26)
- ♦ Jose Luis Azpiazu Etxebarria (10 hilabete)
- ♦ Maria Landa Iriondo (27)
- ♦ Teresa Etxabe Arrona (29)
- ♦ Manuel Iriondo Etxabe (8)
- ♦ Dolores Iriondo Etxabe (8)
- ♦ Jose Iriondo Etxabe (6)
- ♦ Miguel Iriondo Etxabe (4)
- ♦ Antonia Iriondo Etxabe (2)
- ♦ Magdalena Etxebarria Arrillaga (35)
- ♦ Maria Etxebarria Arrillaga (18)
- ♦ Angelita Etxebarria Arrillaga (19)
- ♦ Josefa Iriondo Bergaretxe (35)
- ♦ Santos Arriola Iriondo (14)
- ♦ Josefa Mugertza Agirregomezkorta (29)
- ♦ Libe Iriondo Mugertza (3/5 hilabete?)
- ♦ Maria Iriondo Txurruka (19)

\* Iturria: Sabino Arana Fundazioa, 'Euzkadi' eta 'Eusko Deya' egunkariak eta Elgoibar 1936 taldea.



V. URTEURRENA

## Jose Mari Aramberri Urrutia

2012ko irailaren 13an hil zen. Haren oroimenez V. urteurrenako meza izango da, zapatuan, irailak 9, 19:00etan Elgoibarko San Bartolome Deunaren eliz parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde z aurretik.



**Ez zaitugu inoiz ahaztuko,  
ez zaitugu inoiz galduko,  
gure bihotz barrenean  
eramango zaitugu betiko.**

Familiakoak



I. URTEURRENA

## Juan Angel Iriondo Kortabitarte

"Angelo"

2016ko abuztuaren 8xan hil zen, 80 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurrenako meza izango da, zapatuan, irailak 9, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde z aurretik eskerrak.

**Zure ahotsaren oihartzuna  
ez da inoiz isilduko**

Zure familixakuak

San Bartolome bezpera gendun  
egun alaia izatez  
azken arnasa hartu duzu zuk,  
zure betiko irribarrez  
baiña ez zera jun, zu hemen zaude  
betiko gugan izanez.

Lasaitasunez eta pakian  
eta aittakin bide batez  
maite zaittugu, eta ikusi arte  
zoriontsu izan zaitte z.

## Maria Ansola Zigorraga

2017ko abuztuaren 23an hil zen, 89 urte zituela



Aitor  
Huizi



## Huntza musika taldeko biolin-jolea

Azkenaldian, batean eta bestean entzuten ari gara Huntza taldearen *Aldapan gora* abestia, eta ikasturte hasierako aldapari aurre egiteko Huntzaren doinuak entzun ahal izango dira Elgoibarren, taldea bertatik bertara arituko baita gaur iluntzean, Maalan, Ludotekaren eta Gaztelekuaren 10. urteurrenean. 19:00etan Musika Eskolako txaranga Kalegoen plazatik irten eta Maalan Biraka taldekoek dantza egin ostean izango da kontzertua, eta herritarrek dantzarako aukera izango dute. **BARRENEK** biolin-jolearekin, Aitor Huizirekin, hitz egin du.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

# “Publiko anitza izatea guretzat positiboa da”



### ♦ Sei musikari gipuzkoar Bizkaian bat eginda Euskal Herriko plazetan zabilzate. Nola sortu zen Huntza taldea?

Denok ikasleak gara eta taldea Bilbon sortu genuen unibertsitate giroan. Ostegunetan, zazpi kaleetan, trikipoteoak egoten dira eta horietako batera ni biolinarekin joan nintzen eta Josune Arakistain trikitiarekin. Hor ezagutu genuen elkar. Bera talde bat sortzeko asmotan zebilen orduan. Gero, ezagutzen genituen inguruko musikari batzuri komentatu genien, eta hauek prest azaldu zirenez, taldea sortu genuen. Lau lagun hasi ginen: Aitzol Eskisabel (gitarra), Peru Altube (bateria), Josune Arakistain (trikitixa eta ahotsa) eta ni, Aitor Huizi (biolina). Orain, Inhar Eskisabel (baxua) eta Uxue Amonarriz (panderoa eta ahotsa) ere badaude.

♦ **Aldapan gora da zuen abesti arrakastatsuen. Zuretzat aldapan gora joate hori astuna izan da ala goraino iristearekin pozik zaude?**



Kantua iazko udan baguen eta beste kantu batzuekin jotzen genuen plazetan, baina ez zen hain ezaguna. Gero, ordea, bat-batean irratan jartzen hasi ziren, eta jendea asko gustatu zitzaion. Orduan pasa ginen inguruko lagunek eta gazteek ezagutetik mundu guztiak kantua ezagutzera. Herrietatik deika hasi zitzaizkigun eta hori guretzat nolabaiteko shocka izan zen.

♦ **Uda amaieran gaude eta kontzertu asko izan dituzue. Zaila al da hainbeste emanaldira aurre egitea?**

Poz handia ematen du, ikusi dugulako herri guztietan jendeak baloratzen gaituela eta hori oso positiboa da. Baina denbora eta energia aldetik sakrifizio handia eskatzen du. Askok nekatzen du batera eta bestera ibiltzeak, eta gainera, eszenatokira pozik igo behar izaten dugu herri guztietan; gustura egon eta kunplitu. Herri guztietan publikoak exijentzia bera dauka, baina gu gero eta nekatuago gaude. Hala ere, oso gustura iritsi gara uda amaierara.

♦ **Zein kontzertu izan da zure gustukoa?**

Askok egon dira onak, baina Hatortxu Rock jaialdikoa oso berezia izan zen; batetik, zegoen jendetzarengatik, eta bestetik, kausagatik, jaialdia dispartzioaren aurkakoa delako.

♦ **Trikitia da zuen musikaren oinarri, baina bestelako doinuak ere tartekatzen dituzue. Nola definituko zenue zuen estiloa?**

Gure musika puzzle modukoa da. Baditugu pieza batzuk erronomia girotik datozenak, baina bateriak eta gitarrak ematen diote ukitu gogorxeagoa, eta hainbat kantutan erritmoa ere ematen du biolinak, ukitu exotikoa, folk erakoa.

"Gazte asko musika arloan oso ondo prestatuta daude eta oso proposamen interesgarriak egiten dituzte"

Beraz, itxoin beharko genuke ikusteko zein aldetara jotzen dugun.

♦ **Nor arduratzen da kantuek konposatzeaz?**

Orain arte ideia nagusiak Josunerenak izan dira. Melodia ekartzen du trikitiarekin, eta gero denok lantzen dugu norbere instrumentuaren zatia moldatuz. Peru, bateria, ere sormen handikoa da, eta pare bat kantu bereak dira. Letrari dagokionez, kantuek prestatzen ari garenean iritzira egiten ditugu eta behin sortutakoan gertuko bertsolari ezagunei eskatzen diegu letra txukuna egitea. Diskorako letra ia guztiak emakume bertsolariei eskatu dizkiegu, eta propio egindako keinu bat izan da. *Aldapan gora* abestiaren letra Maider Arregirena da, eta Maialen Akizu edo Eli Pagolak ere egin dizkigute abesti batzuk.

♦ **Nola ikusten duzue publikoa taula gainetik?**

Umeak izaten dira batetik, besteak beste *Aldapan gora* abestia entzun dutelako eta gustukoa zaielako; baina gazteak ere asko izaten dira. Deigarria da Hegoaldean, herri txikietan, ume gehiago egoten direla eta hiri handietan, aldiz, gazteak. Helduak ere parte txiki bat direla iruditu arren, nahiko iza-

ten dira. Iparraldean, esaterako, nik nahiko heldu ikusten ditut gure kontzertuetan. Publiko anitza izatea guretzat positiboa da.

♦ **Euskal Herriko musika panoraman azkar egin duzue aldapan gora. Nola ikusten duzu egoera?**

Gaur egun, komunikabide eta sare sozialen bidez hedatu aukera handiagoa du. Huntzak duen besteko oihartzuna izan du irrati, facebook... horientatik eta etorkizunera begira kontuan hartu beharreko faktorea da. Bestalde, gazte asko musika arloan oso ondo prestatuta daude, eta oso proposamen interesgarriak egiten dituzte. Ez dakit hemendik 10-15 urtera nola ibiliko garen, baina gaur egun arrakasta lortzen ari diren taldeei jarraipena egin behar zaie, maila ez baita jaisten ari, alderantziz baizik.

♦ **Jendea Elgoibarko zuen kontzertuaren zain dago. Zer eskainiko duzue?**

Gure helburua da publikoak ondo pasatzea eta jendea dantzan jartzea. Parranda giroa jarriko dugu, bai umeentzat, bai gazteentzat eta baita helduentzat ere, eta publikoak ere nahiko giro ona jarriko duela uste dugu.

♦ **Etorkizunera begira zerbait baduzue esku artean?**

Uda amaitzeaz bat kontzertu gutxiago emango ditugu, taldekide guztiok ikasleak garelako. Udako kontzertuetan diskoko kantuek kaleratu ditugu batik bat, baina, pixkanaka repertorioa zabaltzen ahaleginduko gara. Horrek ez du esan nahi disko berri bat egingo dugunik horrek denbora asko eskatzen duelako, baina sorkuntza lanean hasiko gara gure errepertorioa berritzeko.



## *Pakita Aierdi Larrañaga*

2017ko abuztuaren 24an hil zen, 80 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## *Tomasa San Martin Alberdi*

2017ko abuztuaren 23an hil zen, 98 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## *Juan Muguruza Cendoya*

"Agarretxiki"

2017ko abuztuaren 16an hil zen, 89 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

## *Rosario Gandiaga Gainza*

2016ko irailaren 4an hil zen, 89 urte zituela.  
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, irailak 9,  
19:00etan Elgoibarko San Bartomole Deunaren eliz-parrokian.  
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



I. URTEURRENA

## *Miguel Zabala Lazarobaster*

2016ko irailaren 14an hil zen. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da,  
domekan, irailak 17, 12:00etan Azpilgoetako parrokian.  
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Beti izango zaitugu gure bihotzetan***

Zure familia




I. URTEURRENA - ESKERTZA

## *Antonio Gorriti Aguirre*

2016ko abuztuaren 23an hil zen, 92 urte zituela.

***Beti izango zaitugu gogoan***

Sendiak bihotzez eskertzen du I. urteurreneko elizkizunera agertu izana.





Zuen kexak, galderak edo txalok bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) - 943 744 112




**Zuhaixkak Pilarreko aparkalekuan:** "Pilarreko aparkalekuan, hormetan, hainbat zuhaixka daude, eta horrek galarazten du paretan aldameneko plazetan autoa uztea. Utziz gero, traba izan daitezke autotik irteteko, eta autoa urratzeko arriskua ere badago. Beraz, eskertuko nuke zuhaixka horiek moztea, bestela hainbat aparkaleku galduko dira".



**San Roke kaleko baldosak lekuz kanpo:** "San Roke kalean, kiroldegi aldamenean, lur azpiko zabor edukiontzien inguruan, hainbat baldosa bere lekutik kanpo daude, eta batzuk kendu ere egin dituzte zuloa utziz. Eurria egiten duen egunetan bustitzeko arriskua izaten da, eta gainerakoetan ere, arriskua egoten da hanka zuloan trabatu eta jausteko. Jakin nahi nuke ea baldosa horiek berriz jartzeko eta egoki lauzatzeko asmorik badagoen". Udaleko Hirigintza Sailean esan digutenez, ipiniko dituzte falta diren baldosak, baina kolokan daudenak finkatu ere. Lan horiek egiteko baina, bestek beste, eguraldiari erreparatu beharko diote.

**Kalamu eta porru usaina Maalan:** "Maalako parkean jendea egoten da kalamua eta porruak erretzen. Nire ustez, ez da leku aproposa, ume pila bat ibiltzen delako jolasean. Porruak erre nahi dituenak erre ditzake, noski, baina horretarako badira beste leku batzuk, eta ez umeen parkeak. Beraz, dagokionari eskatu nahi nioke neurriak hartzeko, lotsagarria baita egoten den usaina". Udaltzainei galdetu diegu eta esan digute bide publikoan berez ezin dela kalamurik eta porrurik erre, eta ikusiz gero, isun handiak ipini ditzaketela. Baina euren aurrean kontsumitzen ez badute, udaltzainek ezin dute neurririk hartu.

**BARREN buzoitik lapurtzen dutenentzat:** "Harpidedun batek baino gehiagok kexa helarazi digu baten baino gehiagotan ez duelako BARREN buzoian jaso. BARREN buzoitik kendu dietela uste dute zenbaitek. Beste inori aldizkaria buzoitik kendu aurretik oso erraza da aldizkariko harpidedun egitea. BARREN ostiralero etxean jaso nahi duenak BARRENeko bulegoan izena ematearekin nahikoa izango du. Elgoibarren aldizkaria doan banatzen da, beraz, eskertuko genuke besteen postontzitik aldizkaririk ez hartzea".



ETXEBIZITZA ETA  
GARAJEEN HURRENGO  
ERAIKUNTZA **UBITARTEN**

**943 31 65 86**

INFORMAZIO  
GEHIAGO

[www.sukia.com](http://www.sukia.com)

San Roke kalea 15 - 20870 Elgoibar  
Koordenadak: 43.212760, -2.416292

**sukia**  
Zure etxean zaude. Estás en tu casa

**grupo LAZKANO**

Enpresaren  
**k** hitzartea



# Juan Manuel Osoro Oregui

07-07-1970/12-08-2017

G.B.

**Nahiz eta agur esan behar,  
ez zaitugu inoiz ahaztuko  
eta beti gure bihotzetan  
izango zara.  
Muxu bat.**

Sendiak

Francisco Javier  
Zarzuelo Altuna



2001-04-09

Victor  
Zubiaurre Lodoso



2011-12-20

Patxi  
Ajubita Ayesta



2015-03-16

Iñaki Fernandez  
Mendizabal



2017-07-15

**Makila kuadrillak ez zaituzte ahaztuko.**



I. URTEURRENA

## ***Txomin Mendez Rodriguez***

2016ko abuztuaren 30ean hil zen, 75 urte zituela.  
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan,  
irailak 9, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren  
eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***"Ez da agur esaten  
nor bait maite duzunean.  
Maitasuna ez delako joaten  
bihotzean gorderik dagoenean"***

Etxekoak



## Frankismoaren biktimak oroitzeko hainbat ekintza egingo dituzte irailean

**F**rankismoaren biktimak oroitzeko ekintaldiak antolatu dituzte Taupadak eta Elgoibar 1936 taldeak irailerako. Irailaren 16an, kandela gorriak piztu eta minutu bateko isilunea gordeko dute, 21:00etan, Kalegoen plazan. Ondoren, ranxo afaria egingo dute Elgoibarko parrokoiko arkupeetan. Afarirako txartelak 10 euroan egongo dira salgai Jai Alai eta Lanbroa tabernetan. Antolatzaileek eskatu dute garaiko jantziekin joatea afaritara. Irailaren 22an, berriz, *ELE!! Lorca-Luaxeta* ikuskizuna ikusteko aukera izango da. Jon Maia bertsoariak eta Josu Kamara zuzendariak sortutako obra da, eta Maia bera agertokian azaltzen da. Estepan Urkiaga *Luaxeta* eta Federico Garcia Lorca idazleak hartu dituzte oinarri Jon Maiak eta Josu Kamarak. Dantza, musika, testua eta irudiak uztartzen ditu emanaldiak. Irailaren 23rako, berriz, ekitaldia antolatu dute hilerrian, Duintasunaren Kolunbarioan.



## Arantxa Iturbe eta Harkaitz Cano idazleek literatur saioa eskainiko dute hilaren 20an



Irailaren 20an literatura ekitaldi berezia izango da Musika eskolako auditoriumean, 19:00etan hasita. Arantxa Iturbek eta Harkaitz Canok Elgoibarrerako propio sortutako saioa eskainiko dute. Idazlea da Cano, irratilaria Iturbe. Elkartzen dira tarteka airean literatura idazteko asmoz.

Ekimen hau Elgoibarko hainbat idazlek eta literatura zalek osatzen duten Hamaika litera ekimenaren parte da, eta ziklo bati hasiera emango dion estreinakoa izango da. Azaroaren 15ean Kirmen Uribe eta Alaine Agirre idazleak izango dira, eta abenduaren 15ean, Asier Serranoren poesia-errezital musikatua.

## Gurasoentzako euskara ikastaroak antolatu ditu Elgoibarko Udalak

Elgoibarko Udalak gurasoentzako euskara ikastaroak jarri ditu martxan Udal Euskaltegiarekin eta AEK euskaltegiarekin elkarlanean. Euskara ikasten hasteko, hobeto edo errazago berba egiteko, edota hobeto idazten eta irakurtzen ikasteko ikastaroak eskainiko dituzte. Izena emateko epea irailaren 22an amaituko da. Informazio gehiagorako honako telefonoetara deitu behar da: 943 742 731 (Udal Euskaltegia) edo 607 601 423 (AEK).


## Elgoibarko dantzariak Zarauzko Aurreku eta Soinu Zahar txapelketan

Zarauzko Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketa jokatu zuten asteburuan, Euskal Astearen barruan, eta beste hainbaten artean, Inazio Berteziartua Musika eta Dantza Eskolako bi ordezkariak parte hartu zuten: Nerea Sasiain, soinu zahar txapelketan, eta Gaizka Uranga, aurreku txapelketan. *Ehun Dukat*, *Hasierako soinua*, *Kontrapasa*, *Humboldt zortzikoa*, eta Esku aldatzeko soinua dantzatu zituzten lehiakideek. Elgoibarko dantzariak "maila onean" aritu zirela azaldu dute Bereziartuako arduradunek, lehen hiru postuetatik kanpo gelditu baziren ere. Euskadiko Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketarako ahalik eta hobekien prestatzea izango da bi dantzarien hurrengo erronka. Irailaren 30ean jokatuko da Pasai Antxon.





## 50 neska parte hartu dute Realak eta C.D. Elgoibarrek elkarlanean antolatutako futbol campusean



Nesken artean futbola sustatzeko, Futbol Campusa antolatu dute Realak eta C.D. Elgoibarrek elkarlanean. Realeko arduradunek gidatutako entrenamendu saioak eskaini zituzten Mintxetan astelehenean eta martitzenean. "Hamar edo hamabost neska inguru apuntatuko zirela aurreikusten genuen arren, 50 neska eman zuten izena azkenean. Oso pozik gaude ekimenak izan duen arrakastarekin", azaldu du C.D. Elgoibarreko presidente Jon Basurtok. Garbiñe Etxeberriak (Hernani, 1967), Realeko emakumeen saileko kirol zuzendaria, eta iaz arte Realeko kapitaina izan zen Aintzane Encinas (Donostia, 1988) futbol jokalaria ohiak gidatutako entrenamendu saioetan parte hartu zuten 8 eta 14 urte bitarteko neskek. Itziar Gurrutxaga futbolari izandakoa ere aritu zen entrenatzaile lanetan. (bideoa eta argazkiak [www.barren.eus-en](http://www.barren.eus-en))



## Aurten ez da egingo Gau Krosa

Sigmako Pilota Txapelketa eta Azkarateko txirrindularitza eta antxintxika igoeren ostean, Elgoibarren beste kirol proba bat antolatzeari lagako diotela jakin dugu. Mintxeta Atletismo Taldeak iragarri du aurten ez duela Gau Krosik antolatuko. 2010ean antolatu zuten estreinako Gau Krosa, Juan Muguerza Nazioarteko Krosa antolatzeko dirua lortzeko. Aurtengoak, hortaz, zortzigarrena izan behar zuen. Parte hartzaile kopurua jaitsi izana eta proba antolatzeko dituzten zailtasunak aipatu dituzte "hainbeste maite" duten proba, "momentuz", antolatzeari lagatzeko arrazoi nagusitzat, eta gaineratu dute Juan Mugertza Krosa antolatzeko lanetan jarriko dutela indar eta ahalegin guztia. Izan ere, krosaren 75. ekinaldia jokatu da 2018ko urtarilaren 14an, eta 75. urteurrena ospatzeko lantalde berezia osatu du Mintxeta atletismo taldeak.



## Maite Maiora, bigarren Mont Blanceko 101 kilometroko ultra trailean

Munduko ultra trail ospetsuena jokatu zuten aurreko asteburuan Chamonixen (Frantzia), Mont Blanceko ultra traila. Maite Maiorak 101 kilometro eta 6.100 metroko desnibel positiboa zuen CCC proban parte hartu zuen, eta, ibilbide motzagoetara ohituta dagoen arren, bigarren egin zuen Clare Gallagher estatubatuararen atzetik. Probaren lehen kilometroetan, eta ia erdira arte, lehen postuan joan zen Maiora, ultra distantziara ohituagoak dauden aurkariekiko abantaila hartzeko ahaleginean. Aldea nahi bezain beste handitu ezin zuela ikusi zuenean, "beheraldia" izan zuela aitortu zuen Maiorak proba amaieran. "Banekien azkar zetorrela (Gallagher) eta aldea aise murriztuko zidala. Hortaz, irabaziko ez nuela ikusita, Chamonixera ahalik eta azkarren ailegatzeari izan zen nire helburu nagusia. Clare Gallagher (12:13:57) irabazlearengandik ia 13 minutura iritsi zen helmugara Maiora (12:26:41).



## Sanloren garagardo festa, irailaren 14tik 17ra

SanloBeer garagardo festa antolatuko du Sanlo eskubaloitako taldeak, bosgarren urtez. Iaz hasitako bidetik, Maalako parkean izango da, irailaren 14tik 17ra bitartean. Datorren egunean, 18:30ean, izango da garagardo azokaren inaugurazioa. Garagardoaz gainera, ukondoa, saltxitxak, patata purea, oilaskoa eta patata frijituak eskainiko dituzte egunero. Azken egunean, domekan, paella erraldoia prestatuko dute. Jan edanaz gainera, zuzeneko musika emanaldiek, bingoak zein dantzaldiek giroa dute karpako giroa. (Egitaraua Agendako orrietan)



## Imanol Alvarez txirrindulariak irabazi du Ibarrako San Bartolome Saria

Denboraldi osoan garaipenetik gertu ibili da Imanol Alvarez, eta Ibarren eskuratu du azkenean bila aritu den saria. San Bartolome Saria txirrindulari lasterketaren 36. ekinaldia jokatu zuten Ibarren, domekan. Junior mailako txirrindulariek 68 kilometroko ibilbidea osatu zuten, eta Imanol Alvarez (Ciclos Iturriaga) txirrindularia izan zen guztietan azkarrena. Alvarez bakarrik ailegatu zen helmugara, azken metroetan Urko Semperena (Victor Alvaro Construcciones) txirrindulariari aurre hartu eta gero. Hamabi segunduko aldea aterazioan lehenak bigarrenari.





Argazkiak eguztien eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak, **Lore**, abuztuaren 16an 7 urte bete zenituelako. Muxu potolo bat etxeko guztion partez.



Zorionak, **Sare**, gaur 8 urte egin dituzulako. Ondo pasa, marimondongil! Muxu asko denon partez.



Zorionak, **Hai-zea**, abuztuaren 20an 4 urte egin zenituelako. Etxeko guztien partez, muxu handi bat.



Zorionak, **Mikel**, zure 9. urtebetetzean. Muxu handi bat familiako guztion partez.



Zorionak, **Iraia**, 4 urte handi! Bildu kandelak eta jarriko dugu guk pastela. Gurasoen, neba Oinaizen eta lagunen partez.



Zorionak, **Enaitz**, 7 urte dagoeneko! Segi beti bezain jator. Gurasoen, arreba Juneren eta lagunen partez.



Zorionak, **Unai**, bihar 9 urte bete dituzulako. Jarraitu horrelako mutil jatorra izaten. Etxekoak.



Zorionak gure etxeko neska poptoxari. Mila muxu, Naia, Intza, Malen, Oier eta Liberen partez.




Zorionak, **Ibai eta Oihane**, opor hauetan urteak bete dituzuelako. Muxu asko, denon partez.



Zorionak eta patxo erraldoi bat, **Luka eta Jon**, abuztuaren 30ean eta irailaren 7an urteak bete dituzuelako. Malen, Noa, amatxo eta aitaxoren partez.



Zorionak, **bikote!** Iritsi da zuen eguna! Gozatu familixakuekin, illuntzian kuadrillakueri tokatzen jaku-eta! Patxo bat, Eiderren kuadrillakuen partez.



**Ekaitz eta Eider**, iritsi da zuen eguna. Ondo-ondo pasa eta zoriontsuak izan! Muxu handi bat etxeko denon partez!

**2018ko Gida komertziala**

**Elgoibarko eta Mendaroko gida komertziala** prestatzen dihardugu. Zure enpresaren datuak gidan DOAN agertzeko aukera daukazu!

Datu-basea osatzeko zure laguntza behar dugulako, eskertuko genizuke gurekin harremanetan jarzea:

[gida@elgoibarkoizarra.eus](mailto:gida@elgoibarkoizarra.eus)  
[gidabarren@gmail.com](mailto:gidabarren@gmail.com)

**943 744 112**

Interneten ere **bai!**

**Uzuri** ELGOIBAR - DEBA  
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel.: 943 740 359 [www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

Denboraldi amaierako deskontuak, markadun eguzkitako betaurrekoetan.

**AZKEN EGUNAK!**



II. URTEURRENA

**Lourdes Leyaristi Echeverria**

2015ko irailaren 10ean hil zen, 93 urte zituela.

**Beti izango zaitugu gogoan**

Etxekoak



## 8 BARIKAKUA

**19:00-21:30** Gazteleku eta Ludotekaren 10. urteurrena, Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Sailak antolatuta.

- **19:00** Kalejira: Musika Eskolako txaranga. Kalegoen plazatik Maalara.

- **20:00** Ikuskizuna: Biraka Dantza taldea. Maalako parkean.

**20:30** Kontzertua: Huntza.

**21:30** Bideo foruma: *Hace mucho que te quiero*. Koordinatzailea: Loredi Salegi. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Antolatzailea: Haizea.

## 10 DOMEKIA

**10:30-13:30** Dolmenen ibilbidea (euskaraz). Tel.: 657 794 677. Emaila: info@begi-bistan.com

## 11 ASTELEHENA

**16:30-19:30** Ludotekaren irekiera. Astelehenetik barixakura.

## 13 EGUAZTENA

**17:00-20:00** Gaztelekuaren irekiera. Martitzenetik domekara.

### Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

**09:00 - 22:00**

8 Barixakua FERNANDEZ

9 Zapatua YUDEGO

10 Domeka YUDEGO

11 Astelehena ORUESAGASTI

12 Martitena BARRENETXEA

13 Eguaztena IBAÑEZ

14 Eguena GARITAONANDIA

15 Barixakua ETXEBERRIA

**22:00 - 24:00**

Astelehenetik igandera

GARITAONANDIA

**24:00 - 09:00**

ELORZA (Eibar)

Juan Gisasola, 18

943 206 100

\* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)

Tel.: 943 756 142

\* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)

Tel.: 943 751 638

\* Oruesagasti: Kalebarren, 9

(Soraluze) Tel.: 943 751 384



I. URTEURRENA

## Josemari Lasa Amorebieta

2016ko abuztuaren 26an hil zen Bilbon.

**Zure bihotzeko taupadak gelditu arren,  
gure bihotzeko "TAUPADAN" eta "Memoriaren ganbaran" betirako.**

Taupada antzerki taldea, Patxi, Eurne eta Larra.



I. URTEURRENA

## Josemari Lasa Amorebieta

2016ko abuztuaren 26an hil zen Bilbon.

**Sormenaren eta alaitasunaren iturritik  
edan genuen elkarrekin,  
oroimenean izango zaitugu  
zu beti gurekin.**

Elgoibarko familia





## SANLOBEER FEST

### 14 EGUENA

18:30 Karparen inaugurazioa.  
19:00 Irekiera.  
19:00-21:00 Pintxo potea (ganbak).  
21:30 Musika.

### 15 BARIXAKUA

18:00 Karparen irekiera.  
19:00-21:00 Pintxo potea (ganbak).  
22:00 Musika zuzenean.  
23:30 Bingo solidarioa.  
00:00 Dantzaldia

## Uztailean eta abuztuan hildakoak

- **Felipe De Castro Moreton**  
69 urte, uztailek 2
- **Jose Ramon Salegi Urain**  
62 urte, uztailek 6
- **Jose Gabiola Altuna**  
81 urte, uztailek 9
- **Iñaki Fernandez Mendizabal**  
62 urte, uztailek 14
- **Octavio Calles Maldonado**  
88 urte, uztailek 17
- **Luis Oñederra Irureta**  
86 urte, uztailek 17
- **Iñaki Oñederra Egaña**  
59 urte, uztailek 29
- **Manu Osoro Oregi**  
47 urte, abuztuak 12
- **Juan Muguruza Zendoia**  
89 urte, abuztuak 16
- **Juana Socorro Serrano Gonzalez**  
93 urte, abuztuak 19
- **Maria Ansola Zigorruga**  
89 urte, abuztuak 22
- **Francisco Javier Alonso Allende**  
72 urte, abuztuak 23
- **Tomas San Martin Alberdi**  
98 urte, abuztuak 23
- **Pakita Aierdi Larrañaga**  
80 urte, abuztuak 24



# ETXEBERRIA

## EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar  
info@funerariaetxeberria.com  
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.  
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.  
Erietxe zentruetan zerbitzuak.



VII. URTEURRENA

## Jose Luis Huidobro Torinos

2010eko irailaren 4an hil zen, 58 urte zituela.

**Beti izango zaitugu gogoan.**

Emaztea, seme-alabak eta gainerako senideak.



I. URTEURRENA

## Lucia Larrañaga Idigoras

2016ko abuztuaren 14an hil zen, 60 urte zituela.

**Izan zarenagatik, erakutsi duzunagatik, ez zaitugu inoiz ahaztuko.**

**Maite zaitugu.**


Etxekoak





Iosu Juaristi

### Ainhoa Lendinez



Jendetza ikusten dut argazki horretan. Pertsonak eta pertsonak, eta gehienak, sakelakoa eskuan, gertatzen ari dena zuzenean bizi dezaketela ahaztuta, une hori pantaila txikian gorde nahian. Kilian Jornet helmugara iristear zen, 19 orduan Mont Blanc handiari bira eman ostean. Arkuaren eskuineko bazter batean nengoen ni, Kilian zuzenean ikusi nahi eta ezinik, kamerez eta mugikorrez inguratuta. Handia egin dute. Baina Kilianek berak askotan esan izan du, berak ez diola aparteko ekarpenik egiten gizarteari, ez behintzat irakasle batek edo sendagile batek egin dezakeen tamainan. Handiagoak dira hitz horiek, Mont Blanci 19 orduan bira ematea baino. Ametsak besteren lorpenekin bete nahi dituen jendea ere ikusten dut argazki horretan. *Kilianek ez du irabazi, zelako pena! Pena? Zergatik? Lehenengo iritsi ez delako? Bigarren egin duelako? Lagun batek Kilianen denboraren bikoitza behar izan du Mont Blanci bira emateko, eta hura bezain garaile sartu da helmugan, 40 orduren ostean. Eta ni neu ere aritu naiz Mendi Zuriaren magaletan egunotan, erlojuaren kontra. Izugarri sufritu dut: inoiz ez bezalako*

nekearengatik hasieran, inoiz ez bezalako hotzarengatik ondoren. Baina lagunek bultzatuta iritsi naiz helmugara: ez lehenengo, ez bigarren. Hogeitik gora baziren nire aurretik iritsitakoak. Eta inoiz baino gehiago gozatu dut. Ikasgai handia izan da Mont Blanceko ultra-traila, aurten. Arropa gutxiegi eraman nuen soinean, eta kilometro gutxiegi oinetan. Mendiari zor diodan errespetuak eskatzen dit gogoeta bat bederen. Zeren ez dago "Kilian efekturik" edo beste aitzakiarik. Mendia beti dago hor, zain, ezer ezkutatu gabe, bere aurpegi guztiekin. Hala esaten zidaten txikitari. Gure esku dago errespetuz eta ahalik eta ondoen prestatuta hurbiltzea. Eta hala eginda ere, zorionez, mendiak dauka beti azken hitza. Argazki horretan ikusten dut emakume indartsu bat, emakume zaildu bat, azken metroetan nekeari gailendu eta estelada indartsu astintzen. Eta ikusten ditut gizakiaren inbidia, gorrotoa, ezinikusia eta errespetu falta. Beti *lliure*, Nuria! Ipuinetakoak diruditen lore ederrak ikusten ditut argazki horretan, Chamonixeko balkoiak apaintzen. Eta laino artean, argazkiaren bigarren planoan, ezkutuan bezala, abentura honen erdigunea. Mendi Zuria. Uda beteko astebete baino askoz gehiago den mendia. Enegarrenez, begiak edertasunez bete dizkidan mendia.

***"Mendia beti dago hor, zain, ezer ezkutatu gabe, bere aurpegi guztiekin!"***



## Luis Oñederra Irureta

2017ko uztailearen 17an hil zen, 86 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Ez zaitugu inoiz ahaztuko,  
ez zaitugu inoiz galduko  
gure bihotz barrenean  
eramango zaitugu betiko.***



## Mari Tere Osoro Loiola

*"Katxo"*

2017ko irailaren 2an hil zen, 60 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

***Zure irribarre alaia gordeta dugu  
betirako gure bihotzetan.  
Maitea izan zara, eta maitea izango zara.***

Sendiak



## Mari Tere Osoro Loiola

2017ko irailaren 2an hil zen, 60 urte zituela.

***Zure alboan hazi, bizi,  
baita ametsetan egiten nuen nik.  
Baina bukaera latz honi  
zer esango diot nik,  
horrela sufritzea, ez zenuela merezi.  
Ez ziguten eman beste aukerarik,  
hautatu behar genuen zure atsedentoki,  
erabaki behar zen, batez ere, zuregatik.***

***Determinazio, oso gogorra izan zan hori,  
baina, hala ere, joan zarenetik,  
gutziz jota nago ni.  
Zurekin ametsetan segituko dut nik,  
zer esango diot ba, nere arreba laztanari.  
Ez agurrik, ez adiorik, gero arte baizik.  
Zutaz oroituko naiz, orain eta beti.***

Simon



# ALEMANA INGELESA

ALEMANEKO IKASTAROAK UME ETA GAZTEENTZAT

## Alemana ikasi nahi duzu?

- KLASA DINAMIKO ETA ATSEGINAK
- TALDE TXIKIAK
- BANAN-BANAKO JARRAIPENA
- MAILA GUZTIAK: HAUR, GAZTE ZEIN HELDUENTZAT

## Beste zerbitzu batzuk

Ingeleseko ikastaroak zure beharretara egokituta.

- **Zinpeko itzulpenak:** gaztelania/ingelesa, eskola ziurtagiriak, unibertsitate tituluak eta bestelako agiriak.
- **Aldibereko itzulpenak** gaztelania/alemana enprezetan.



**Ainara Barreña**

TRANSLATION & LANGUAGE TEACHING

Aita Agirre plaza 7 eskuma  
(Lekueder) ELGOIBAR  
T. 943 577469 M. 619 690 301  
ainara@traduccionesainara.com  
www.traduccionesainara.com

PROFESIONALAK  
GARA